

# Ze barri?

2000.ko  
UZTAILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA


42 zkia.

*Urlatik Landetara*

Elkarrizketa:  
Arantxa Unzueta

Eskoriatzarrok munduan:  
Larraitz eta Mikel Eskozian

Ereportaiak:  
San Pedroak argazkitan




Ondo pasa udako  
oporrak !



**Udalaitz, S.L.**



**ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA  
 ALUMINIOA-EGURRA  
 PERTSIANAK ETA OSAGIAK**



Araba Ibilbidea, 17  
 Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06  
 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
 E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

San Pedro 9, 1 behea  
20540 ESKORIATZA  
Tel. 943 71 54 34

**ARGITARATZAILEA:**  
AXTROKI  
Kultur Elkartea

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Imanol Garmendia  
Garikoitz Kortazar  
Andoni Bengoa  
Lorea Agiriano

**KOLABORATZAILEAK:**  
Aitor Uribetxeberria  
Aitor Urrutia  
Asier Errasti  
Juanma Pagalday  
Iñaki Agiriano  
J.J Arrieta  
Jon Errasti  
Museo Eskola  
Lourdes Martinez  
Edurne Unzueta  
Iranzu Gabilondo

**INPRIMATEGIA:**  
Eguzkigraf, Koop. Elk.

**TIRADA:**  
2.000 ale


**LEGE GORDAILUA:**  
SS - 200/99

**ISSN:**  
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten  
aldizkarian adierazitako esanekin eta  
iritziekin.



### Jeanne Calment, 122 urte



**P**ertsona nagusiei buruzko liburu bat irakurtzen ari naiz. Autoreak lehenengo kapitulua, Jeanne Calment, 122 urtetako emakume bat deskribatuz hasten du. Honela dio: "Jeanne emakume txikitxo bat da, ile zuriduna, jada ez du asko ikusten baina bere begirada erakargarria eta bizia da. Pertsona bizkorra, kuriosa eta batzutan adarra jotzea ere gustatzen zaiona. Eguneroko notiziari kontatzeko kapaz den emakumea eta gorraize pixkat izan arren edozertaz hitzegin dezakezu berarekin. Normala den bezela, bere lehenaldiko kontu asko kontatzen ditu. Ala eta guztiz ere momentu onak gogoratzea gehiago gustatzen zaio ...".

Pertsona nagusiak gero eta gehiago dira gure gizartean. Eskoriatzan, urrunago joan gabe, 1981ean 330 pertsona ziren 65 urtetik gorakoak eta 1999an, 269 pertsona gehiago kontatu zitezkeen, hau da, 600 bat inguru. Bestalde, bizi itxaropena luzatu egin da, hau da, gaur eguneko pertsona nagusiak lehenagokoak baino urte gehiago bizi dira. Baina, helburua urte gehiago bizitzea bakarrik ote da? Nire ustez, helburua gehiago bizi ditugun urte hoiek kalitatez bizitzea izan behar du. Garrantzitsuena ez da urte gehiago eta gero eta gehiago bizitzea baizik eta urte hoiek kalitatez betetzea. Jeannek hau garbi izan zuen eta azkenerarte hau izan omen zen bere lema: " amets egin, ikasten jarraitu, lehenaldia gogorazi eta sekula ez aspertu ".

Bizi kalitatea kontzeptu subjektiboa izan daiteke baina

orokorrean honako ezaugarriekin definitzen da: duintasuna, ongizate fisiko eta psikikoa, autonomia, bakoitzaren estilora bizitzeko askatasuna, dirua, autoestima, poztasuna, gustoko ekintzetan parte hartzea eta herrian integratua egotea.

Gaur egungo nagusiek ere bizi kalitatea dute helburu bezela, baina gizartean eta guztiongan dauden hainbat aurreritziakin topo egiten dute. Zahartzaroz edo pertsona nagusietaz hitzegiten denean muga fisiko, psikiko eta sozialak azpimarratzen dira. Gutxitan hitzegiten da nagusiek dituzten gaitasun eta aukeraz. Ondoren eta ia ohartu gabe, nagusiak eta zahartzaroa estereotipo negatiboekin asoziatzen dugu eta nagusienganako eta beraiekin lotura duten gauzenganako ukapen moduko bat izaten dugu. Ondorioz pertsona nagusi asko beraieganako gizarteak eta guztiok ditugun aurreritzi hoiek onartzen dituzte eta ezin dutela jadanik ikasi, proiektu bat izan, plazerra sentitu sinesten dute.

Horiek horrela, ikuspuntu positibo batetik eta zahartzaroak aldaketa fisiko, psikiko eta sozialak dakarrela kontutan izanda, zahartzarora bizitzeko beste etapa bat bezela ikustea merezi du. Ikasten eta proiektu bat izaten jarraitu daitekeen etapa bat. Ikuspuntu hau da, beste gauzen artean, gehiago bizi ditugun urte hoiek kalitatez bizitzeko indartu behar dena.

Bukatzeko bi gauza: Batetik, kontziente naiz kasu batzutan zahartzaroak menpekotasunera (fisiko, psikiko) garamatzala eta ikusi egin beharko dela bizi kalitatea nola landu kasu hauetan. Beste baterako utziko dugu. Bestetik, jakin nahi ahal duzue Jeannen errezeta hainbeste urte kalitatez bizi izateko? Lau gauzatxo besterik ez: oliba olioia, Oportoko ardua, txokolatea eta maitasuna.

Hurrengo arte.

**Iranzu Gabilondo**

# ESKORIATZAKO EKINTZA BERRITZAILEEN PARKEA

Joan den ekainaren 23an Eskoriatzako ekintza berritzaileen parkea izenekoa egiteko lehen urbanizazio lanak hasi ziren. Horretarako ekintza sinboliko batetan, Eskoriatzako lehengo alkateak (Manuel Villar) eta

da, %40a industri ihardueretarako eremua, 21.210 m<sup>2</sup>, %35a jardinak edo lorategiak, eta azkenik %25a, 17.244 m<sup>2</sup> autoentzat aparkaleku bide eta oinozkoentzat bidea.

Eraikinen aldetik, bi dorre handi eraikiko dira, non bulegoak kokatuko

onura eta ze kalte egingo dio aldaketa honek Eskoriatza eta bere inguruari? Ez al gabilta gure ingurunea okerrerako aldatzen? Betiko galderak dira, baina oraingoa gure inguruan somatuko ditugu aldaketa guzti hauek eta jakin behar, benetan hau den guztiok nahi duguna.

Inguruaren garbitze lanak hasiak dira eta zuhaitz asko eta asko moztu dituzte, haseran esandakoa baina askoz ere gehiago. Batzuren ustetan gehiegizkoa izan da egin duten garbitze lana.

Maltzaga-Gasteiz autopista Ederlan atzetik pasako da eta San Bernabe-ko peajea izango da Eskoriatzarako irteera, beraz Eskoriatza, urte gutxien buruan oso ezberdin ezagutuko dugu.



**Galdiano S.A enpresa lanak egite hasi den lekuan egunkariaren gordetze sinbolikoa**

oraingoa (Edorta Zubizarreta), egun horretako bost egunkari sartu zituzten lurpean, egun berezi horren zeinu edo arrastoa gera zedin. Aurretik Kultur Etxean, urbanizazio eta eraikuntza lanen proiektuak egin dituzten enpresetako kideek, parke berri honen nondik norakoak azaldu zituzten. Urbanizazio lanak 2001. Urtean amaituko dira eta Galdiano S.A enpresak gauzatuko ditu.

Guztira 62230 m<sup>2</sup> ditu ingurune guzti honek eta modu honetan banatuta geratuko da: 23.910 m<sup>2</sup>, hau

diren, eta beste eraikin guztiak biltegi edo industri iharduerarako balioko dute.

Beraz, argi dago Eskoriatzak aldaketa handi bat jasango duela hurrengo urteetan. Apustu gogorra egin dute udaletxe nahiz inguruko enpresek Parke berri hau eraikitzerakoan. Baina beti geratzen zaizkigu, halako kezka batzuk. Ze



**Udaletxeko kideak Maristen parkeko zuhaitz handi batea aurrean**

Cuenta Joven de Caja Laboral El servicio más completo.

**Euskadiko Kutxaren Kontu Gaztea. Zerbitzuetan osatuena.**

**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**



**OTZETA** jatetxea

Aranburuzabala kalean

ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07

# Haurren udalekuak eta Gaztekantoi

Uztailaren 4tik 21era, haurrak egunero ikusi ahal izan ditugu taldeetan banaturik, gure herrian zehar ibiltzen. Eskoriatzako udalak antolatzen dituen udalekutako haurrak dira, goiz nahiz arratsaldez aktibitate ezberdinak egiten ibili direnak. Goizetan 10etatik 12 terdiak arte eta arratsaldez 3atik 5 terdiak arte. Denetarik egiteko aukera izan dute, eskulanak, pizinarra joan, malabarrak, kareetak, buztina eta abar luze bat. Gainera egun bereziak ospatu dituzte, jai bereziak eginez, adibidez San Fermin eguna edo uraren eguna. Beste egun batzutan, ostiraletan, irteerak egin dituzte: mendira (jinkana mitologikoa), Gasteiz eta Landara. Azken jaia,

udalekuei amaiera emateko, uztailaren 21ean ospatuko dute eta mendebalde edo oeste-ko pelikulen modukoa izango omen da.

Bestaldetik, eta hau ere Udalak antolaturik, aurten lehen aldiz Gaztekantoi programa egin da. Gaztekantoi 13-16 urte bitarteko gazteentzat pentsatutako aktibitate edo udalekuak dira. Hemen aktibitate espezializatuagoak burutzen dituzte: submarinismo, piragua, rappel, eskalada, goma espuma landu, argazkiak errebelatu, sukaldaritza, mendira joan, etabar. Ikus daitekeenez, gazteentzat oso egitarau erakargarria. Gainera asteburu pasa ere joan dira Oriora. Udaleku hau ere goizez eta arratsaldez egin da edo egiten ari dira, ze hau ere 21ean amaituko da. Gaztekantoi egiten den lehen urtea da eta ez du bertan jende askok izena eman baina, zihur gaude, hurrengo urtean jende gehiagok partehartuko duela.



## Amuska Elkartekoak ondo baino hobeto Madrilen

Ekainaren 17an abiatu ziren Amuskakoak Madril aldera astebukaera pasatzera. Hogeitabat lagun, gehienak emakumeak animatu ziren bidai honetara joaten. Argazki hau Madrilgo El Retiro parkean ateratakoa da. Zue, aurpegi irrifartsuetan antzematen zaie gustura ibili zirela. Madril egunez eta gauez

ezagutzeko aukera izan zuten eta hiriarren lekuri ezagunenak bisitatu zituzten. Datorren urtean ziur halako beste bidaiarenbat antolatuko dutela emakume martxosa hauek!



## Presoen eskubideen alde ehun metro Eskoriatzan

Euskal Herrian barrena egiten ari den "Presoen Eskubideen Aldeko Martxa Nazionala" Eskoriatzatik ere pasa zen, uztailaren 12an. Arratsaldeko 4etan hasi zen martxa Aingeru Guardako gasolindegian eta herrian barrena abiatu ondoren, Almen parean, aretxabaletarrek hartu zuten testigua. Eskoriatzarrek harrera beroa egin zioten aldarrikapenari. Gainera, herriko dozena bat elkarte eta gizarte eragileren atxikimendua ere jaso zuen ekitaldiak, bakoitzak presoen eskubideen alde ehun metro eginez. Uztailaren 12ko ekitaldi hau Oñatin bukatu zen. Bertan martxa nazionalen parte hartu zuten hainbat Debagoienatar elkartu ziren

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa** *gizarte-ekintza obra social*



**Pub ALDATZ**

Tfnoa.: 943 714171

**Musika ona entzun dezazun**

# ARANTZA UNZUETA

## Kultur Teknikaria

**Azken urteetan Eskoriatzako Udalak antolatzen dituen Kultur ekintzak antolatu eta koordinatu ditu. Bukatu berri diren jaien balorazioa egin digu eta hurrengo urteari begira dituzten erronkak azaldu dizkigu.**

### 1. Zenbat denbora daramazu Kultur Teknikari bezala?

Aurten egin ditut 13 urte, baina urte hauetan eduki ditut jornada aldetik eta diferentziak. Lehenengo egon nintzen jornada osoa, gero plaza atera zenean jornada erdiz ibili nintzen eta orain berriz martxotik hona nabil zortzi ordu lanean. Baina, tira, guztira 13 urte pasautu.

onak izan ziren.

Baina beste gauza asko ere azpimarratuko nituzke: suzko erruberak, rock jaialdia, arrasateko erraldoi eta kilikien konparsa, euskal jai eguneko erakusketa, zanpantzarrak, egia esateko gauza asko.

### 2. Zer moduzko partehartzea egon da San Pedro jaietako ekintzetan?

Niretzako, aurtengo jaiak oso onak izan dira, Nik uste dut, antolaketa aldetik eta, jende askok partehartu duela eta gainera egon dira gauzak denondako. Nik uste, beste urtetan baina hobeto egon direla. Partehartzea bastante ona, ekintza gehienetan jendea asko egon da.

### 3. Jaietako ekintza bat azpimarratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Pelota partiduak izan dira gauza bat oso potentea, orain arte beti izan dira afizionatuak eta aurten izan dira profesionalak, jendea badakit oso pozik geratu zela, ze oso partidu

### 4. Hurrengo urteari begira, zer uste duzu aldatu edo hobetu behar dela?

Programa ondo egon da. Baina beti daude gauzak hobetu daitezkeenak, beti izaten dugu akats txikiren bat antolaketan, baina gehiago barneko gauzak izango liritezke.


### 5. Urtean zehar zein Kultur ekintza ospatzen dira Eskoriatzan?

Eskoriatzan ditugu ekintza multzo batzu, finkoak direnak, jaixetatik aparte, ihauteriak, San Juan sua, San Pedroak, Gabonak... hauetatik aparte ospatzen dira Udazken Kulturala, mendi bizikleta ibilaldia, udako zinea, udaleku irekiak eta

halako ekintza batzuk fijoak direnak.

### 7. Ze proiektu dituzue hurrengo urterako?

Batez ere, gauzak hobetu landu nahi ditugu eta gauza berriak sartzen joan. Adibidez, hilabetero programa bat egin nahi dugu, taldeek zer antolatuko duten ikusi eta guk ikusten ditugun hutsuneak bete beste ekintza batzurekin. Falta bada zerbait umeentzako, ba ekarri antzerki bat edo beste edozer falta bada, hori ekarri, programa orekatua izan dadin. Hortik dihoa gehienbat gure asmoa.



**AZKOAGA  
ESTANKOA**

*Zure Zerbitzura*



**DORLETA**


Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 943 715061



# San Pedro Jaiak 2000

Argazkitan



**Goian,** Edorta Zubizarreta alkatea eta David Arrieta zinegotzia txupinazoa botatzen.

**Ezkerrean:** tanborradako zuzendaria eta solidarioen maskara zeramatenen taldea.



**Goian:** Suzko erruberak, kalitate onekoak izan ziren Zaragozatik ekarritakoak.

**Ezkerrean:** Trikitilariak eta Autokrossa. Lehenek kalean alaitzen jardun zuten eta bigarrena azken aldiz ospatu da Ederlan aurreko zelaian



**Ezkerretan:** Motozerraz, egur enbor batekin zenbat gauza egin daitezkeen ikusi ahal izan genuen.

**Goian:** Arrasatetik Kilikien konparsa etorri zitzaigun



**Eskubitan:** Mus txapelketako irabazleak sariarekin arro-arro.

**Goian:** San Pedro auzoan egindako sokamuturra.

**Ezkerretan:** Luis Eceizaren jolaslekuan umeentzako jolas eta barrakak egon ziren.





**EUSKAL JAIA**

Uztailaren lehenean ospatu zen, zapatua. Aurreko urtean bezala oso giro ona izan genuen. Zanpantzarrak, erremintaria, taloa, sagardoa, txuletak, gaztaia eta beste gauza asko izan genituen ikusteko eta jateko.



# Larraitz eta Mikel Eskoziako lur hotzetan

Eskozia entzutean burura etortzen zaizkigu, whiskya, gazteluak, gaiteroak, gonak, braveheart eta hantzeko gauzak. Baina hauez gain Eskoziak baditu beste gauza asko, bestela galdetu Larraitz eta Mikel eskoitzarrei, bertan zazpi hilabete igaro ondoren, ondo baino hobeto ezagutzen baitituzte bertako leku eta istorio gehienak.

**D**uela zortzi hilabete joan ziren Eskoziara, konkretuki, Edimburgh-era. Beraien asmoa lana egitea eta ikastea zen. Mikelen kasuan bere ikasketentzat beharrezkoa den ingelesa ikastea zen helburu nagusia eta Larraitzen kasuan, batez ere lana egitea eta leku berriak ikusteak. Esan digute bertan bizitza oso garestia dela eta horregatik lan bat topatzea beharrezkoa dela. Larraitz nagusien erresidentzia batetan eta taberna batetan lan egiten ibili da eta Mikelek hotel batetan. Hala ere lan arazorik ez dagoela, esan digute eta bertan nahi adina lan badagoela. Hori bai, kanpokoentzat lan txarrenak geratzen dira, kamarero, barman eta horrelako gauzak, hizkuntza menderatzen ez dutelako, baina denborarekin ingelesa ikasten den neurrian lan hobea topatu dezakezu.

Eskoziatik oso pozik etorri zaizkigu eta Mikelek behintzat bueltatzeko asmoa duela aitortu digu. Abuzturako abioi tiketa hartua du eta Edimburgoko festibalerako bertan izango da. Festibala Edimburgoko gazteluan ospatzen da eta bertan antzerki eta musika talde ospetsuak biltzen dira. Esperientzia zer moduzkoa izan den galdetzerakoan esan digute asko ikasi dutela, batez ere ikasi dutela bizitzeko, eguneroko gauzak beraien kabuz egiten. "Gure herritik hiru mila kilometrotara izanda nola hala moldatu behar zara. Beste bizitza bat da, egia esan ez da hemengo bizitzaren desberdina, ze lana igual egin behar duzu, baina han nolabaiteko independentzia lortu dugu. Zure dirua irabazi, zure gauzak



Mikel eta Larraitz, Robert MacGregor edo Rob Roy-en hilerria ikusi ahal izan zuten, bere etxea egon zen lekua ere ezagutu zuten.


egin, hemen amak egiten dizu ia dena"

Lanean hizkuntzarekin ondo moldatu direla esan digute, naiz eta hasera batetan pixka bat larri ibili. Hemendik goazenean ez dakigu han nola ibiliko garen, ze hemen denbora askoan ingelesa ikasi eta gero agian han ez duzu ia ezer ulertzen. Larraitzek haseran ez zuen askorik ulertzen, eta gero denborarekin bertako hizkuntza ulertzen joan zen.

Gure herritik hiru mila kilometrotara izanda nola hala moldatu behar zara. Beste bizitza bat da, ez da hemengo bizitzaren desberdina baina han nolabaiteko independentzia lortu dugu

## Euskal Herria eta Eskoziaren arteko parekotasunak

Eskoriatza bezelako herri txiki batetik Edimburgh bezalako hiri batetara bizitzera joatea aldaketa handia izan da biontzat. Herri txiki batetatik ia milioi erdi biztanle dituen hiri batetara pasatzea aldaketa handia da baina, azkenean ohitu egin dira. Hango jendea oso irekia dela esan digute, ohituta daude atzerritarrekin tratatzera eta hori igerrri egiten da, oso umoretsuak dira eta kanpotarra ongi etorria da Eskozian. Euskal Herriakin konparatzen oso laua iruditu zaie,



**Eilean Donan Castle leku ikusgarri batetan kokaturik dagoen gaztelua**

batez ere beheko lurraldea. Hiriak handiak dira eta horrek bizitza edo mugimendu asko suposatzen du, beti dago zerbait egiteko. Janari aldetik, oso nagia dira, dena aurretik egindako edo take away.etan jaten dute. Txokolatinak, hamburgesak, horrelako gauza jaten dituzte batez ere, supermerkatuan barazkiak izkin batean daude eta beste dana lataz beteta dago, gehiena lataz jaten dituzte. Babak, garbantzuak lentejak eta horrelako gauzak nolakoak diren ere ez dakite, dena latetatik jaten dute. Badituzte parekotasun batzuk euskaldunokin, baina diferentziak ere handiak dira.



**Larraitz Ness lakuko monstroaren irudi baten ondoan**

## Egun bat Edimburgh-en

Edimburgoko beraien bizitza nolakoa da? Pisu batean bizi dira eta nahiko lasai bizi dira. Goizean goiz lanera joan eta arratsalderarte lanean, baina neguan lauretarako ilundu egiten da. Gainera Mikel College batera joaten da ingeleseko azterketa bat prestatzen ari baita. Larraitz oso gustora egoten da pertsona adinduekin lanean eta baita tabernan ere, oso alaiak direla dio, tabernan denetarik elkartzen dela dio eta hor egoten direla denak ordu pilo bat, aguerak, punkyak, denetarik, denak elkartzen dira bertan. Asteburutan lana egiten dute eta jai egunak astean zehar izaten dituzte, orduan aprobeztatzen dute, horrela ez dela batere monotonoa esan digute. Desorden hori gustokoa dute eta plan asko egiten dituzte astean zehar, herriak bisitatzera joan, irlak ikusi....

Bizitza erraza da Eskozian, edo behintzat hori iruditu zaie Larraitz eta Mikeli. Lan egin eta bizi, baina denborakin nekatu zaitezke, ze lanak nahiko gogorak dira. Hala ere Mikel oso gustora dago eta berriro bueltatzen da abuztuko festibalerako, lan asko izango baitute hotelean.

## Paisaje ikusgarriak

Edimburgh-en bizi izan dira, baina denbora librean paraje izugarriak ezagutu dituzte.

Iparraldean eta mendebaldean irla ezberdinak, Skye, Mull, Arran, Jorkney . Iparraldeko lurretara ere joan ziren eta bertako hiriburua den Inverness ezagutu zuten. Ness lakuko monstroa ikusi zutela ere esan digute, baina ez dugu uste egia denik. Lakuak ikusi dituzte asko, Eskozia lakuz beteta dago eta beraien artean kanalak eraiki ditu gizonak. Eskozia, barkuan zeharkatu omen daiteke, gizakiak lakuak elkartu baititu, eta sistema berezi baten bitartez, eskulua izeneko presa batzuen bitartez barkuak zeharkatu dezakete Eskozia osoa.



**Eskoziar gaitero bat, bertako jantzi tipikoekin**

# Badatoz udako oporrak, bidaiatzeko asmorik ba al daukazu?



**Kati Perea**

Bai, guk kanpora joateko asmoa daukagu. Avilara joango gara abuztuan.



**Ana Perea**

Bai, ni Palma de Mallorcara noa 15 egun pasatzera. Jadanik abuztua noiz iritsiko desiatzen nago...




**Carmen Gutierrez**

Nik egun batzuk kanpora joateko asmoa daukat. Errioxara joango naiz egun batzuk pasatzera. Abuztuan aste bete edo hamar egun pixka bat atsedean hartzeko.




**Joaquin Mata Serrano**

Ni hemen geratuko naiz, bestela nork zaindu behar du herria? Baina oporretan doazenei esan nahi diet, ez kanpora joateko, dirua bertan gastatu behar dela eta ez kanpokoei eman.



**Miguel Mari Azkarate**

Ni ez noa inora, lan egin behar dut eta. Asteburutan lan egin behar dut eta beraz ez daukat inora joateko asmorik.



**José Moreno Ordoñez**

Egia esateko, oraindik ez dut pentsatu, baina seguraski hemen geratuko naiz. Hemen ere oso lasai eta gustura egon daiteke nire ustez.

carpinteria  
**leniz**

**AROSZTEGIA**  
Tfnoa. 943714936

**EROSLE**

**HARATEGIA,  
FRUTATEGIA eta  
BESTELAKOAK**

Aranburuzabala, 3  
Tfnoa: 943 714546

## GAIA

## Igerileku berrian topless-a debekaturik

Errekorrak hausteko balioko ez duen arren -zabaleran ez omen du neurria homologaturik-, zabaldu digute kanpoko piztina, eta inguruan, solariuma edo eguzkiçaren jipoia jasotzeko eremua edo dena delakoa. Eta hara non, zabalduaz bat hasi direla kalean, eta bereziki, plazako "gezurtegia", lehenengo kritikak. Baina, ez pentsa zerikusirik dutenik potzuaren tamainarekin edo belarraren kalitatearekin, ez, bertarako arautegian "toplessa" debekaturik egotearekin baino.

Egia da azken boladatxo honetan plazan gero eta gizonezko gehiago elkartzen garela umezaintzan -nola aldatzen diren gauzak, kamarada!-. Horregatik, agian, komentariok entzun izana. Zer uste du, baino, jendeak? Pentsatzen zuen piztinaren inguruko terrariuma Amsterdameko eskaparateetako neska kale ospetsu horren antzeko zerbait bihurtu behar zela, ala? Ez du jendeak inoren titiak ikusteko aukera hobeagorik? Halako premia bizian bizi dira batzuk?

Behingoagatik, eta aurrekaririk markatzeko asmorik gabe, guztiz bat nator Udaletxeko mandatariekin arautegia horrela zehaztu dutenean, bai horixe! Hori bai gure haurren morala eta osasun mentala gordetzeko neurri aproposa, eta ez beste hainbat leku eta hondartzatako erlajazioa eta utzikeria. Izan ere, etorkizunean jende jator eta serioa nahi badugu, haurtzarotik bertatik zaindu behar dugu, bizioetatik ahalik eta urrutien mantenduaz. Eta ez litzateke astakeria handia izango gizonezkoiei ere esijituko balitzaie bainujantzi totala emakumeteriarekin arazoak ekiditzeko, batzuek ezingo baitute suelto dabilen hainbat gorputz "danoneren" atrakzioa agoantatu eta.

Sanpedruetako goiz baten, bexperako ajea uxatzeko asmoz, eta bide batez bespera horretan etxean galdutako puntuak errekuuperatzeko asmoz, seme-alabak hartu eta pistinara joan nintzen. Dosporuno izan behar zena tresporuno bilakatu zen, dema gogoari gusto emateko bizpahiru gai "ikusi" nituen eta: hain herri txikian pistina estalia izatea (hauek dakartzaten mantenimendu gastuekin), tokiaren egokitasuna, solariuma ...

Aldameneko satiro honekin komentatu ... eta azkenean anekdota bihurtu zaigu gai: toplessa. Edo hobe esanda pistinako barne arautegiak toplessa debekatu izana. Egia esan niri toplessak ez fu, ez fa (neurea ez bada, edo neure seme-alabena ojo, horretarako eguna inoiz helduko bada, ze ni izan-izan, liberala naiz oso baino ez dira nahastu behar kanpo eta etxeko kontuak: kanpoan liberal, etxean karlista).

Baina tira, su honetara ere ezpaleen bat bota behar eta hona arautegi horren aurka egoteko nere arrazoia: arautegi bat egiterakoan dugun joera murrizkorra. Beti jartzen dugu burua zer egin ezin daitekeen zehazten. Ez ditugu eskubideak eta aukerak zehazten ez, debekuak eta eginezinak ordea bata bestearen atzean jartzen saiatzen gara. Gehienetan inolako logika eta irizpide barik. Erantzuidazue bestela datozen galderei. Zergatik ez debekatu gizonezkoen toplessa?. Topless ibiltzea debekatu gero, zergatik ez debekatu beheko zati barik ibiltzea? Debeku horreik, zergatik mugatu pistinara eta ez zabaldu liburutegira, kultur etxera, zaharren egoitzara ...? Zai nauzu, kamarada (topbarik).

Oharra: Lenin gutarra izan balitz "Zer egin?" idatzi ordez "Zer ez egin!!!" idatziko zuen

## jone eta jojo

Dema gogoak atal honetan, gai ezberdinen inguruan iritzi kontrajarriak azalduko dituzte bi kolaboratzailek. Iritziak ez dute zertan idazten duenak pentsatzen duenarekin bat etorri, hori dela eta ezinez sinatuta datoz. Hala ere norbaitek beraien izena jakin nahi balu ez legoke arazorik.

## OPORRALDIA

\* Udako oporraldia prestatzen ari baldin bazara, informazio baliagarria aurki dezakezu Arrasateko Gazte Bulegoan. Estatuko nahiz atzerriko informazioa dugu: zer ikusi, ruta turistikoak, alojamendua eta beste hainbat informazio interesgarri.

## KONTZIENTZI ERAGOZPENA

\* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, Gazte Bulegoan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.

## TXARTELA

\* Uda hontarako baliogarri izango duzu nazioarteko gazte, ikasle edo aterpetxe txartela. Eskuratu nahi izanez gero, pasa zaitez Gazte Bulegotik.

## DIRULAGUNTZAK

\* Barne merkataritza arloko aholkulariak prestatzeko dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: uztailak 22.

\* Arlo turistikoan ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: uztailak 22.

\* Kontsumo alorrean prestakuntzak burutzeko bekak. Epea: uztailak 22.

\* Administrazio Publikoaren inguruan ikerketak egiteko dirulaguntzak, zuzenbidea, zientzia politikoak, soziologia, pedagogia, ekonomia edo enpresa zientzian lizentziatuentzat. Epea: abuztuak 1.

## IKASTAROAK

\* Emakumeentzako "makina erreminta eta doikuntza ikastaroa" antolatu du Arrasateko Udaleko Enplegu Zerbitzuak. Ikastaroa irailetik martxorarte izango da. Izen emate epea: uztailak 21.

\* Donostiako Arteleku Zentruak informatika grafikoa eta "musika eramangarria" tailerrak antolatu dituzte abuzturako.

\* EHNEk nekazaritza eta garapenari buruzko ikastaroa antolatu du, autoenplegua bultzatzeko proiektuak landuko dituena. Ikastaroa irailean hasiko da.

## LEHIAKETAK

\* Arrasateko Emakume Sailak, Komiki ez sexisten III. lehiaketa antolatu du. Lanak 17x24 zmk0 edo proportzio bereko formatu bertikalean eta 2-4 orri bitarteko luzerakoak. Txuri-beltzean edo koloretan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: uztailak 21.

\* Gasteizko Indar Kultur Zentruak "Gaztebideo", gazteen bideo amateurraren VIII. Erakustaldia antolatu du. 99-2000 urtetan egindako lanak, 20 minututik beharakoak eta antzezle gehienek 21 urtetik behera izan beharko dute. Epea: uztailak 31.

\* "Ignazio Aldekoa" ipuin lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak, euskaraz edo gaztelaniaz, 12-25 orrialde bitarteko luzeeran idatziak. Epea: irailak 8.

\* Zumarraga-Urretxuko Udalak hainbat lehiaketa antolatu du: argazki, pintura, bertsopaper eta komiki lehiaketa. Epea: irailak 8.

\* GAZTEMANIAK! CDa argitaratzeko deialdia egin du Gipuzkoako Diputazioak. Kontratu diskografikorik ez duten musika taldeekin osatutako CD bat izango da. Konpaktoa eta taldeari buruzko informazioa bidaltzeko epea: irailaren 9ra arte.


\* Nafarroako ikusentzunezkoen sorkuntza lehiaketa, 98tik aurrera bideoan edo CD-ROMean grabatutako lan artistikoak edo interneteko proiektu artistikoak aurkeztu ahal dira. Epea: irailak 15.

## JAIOTZAK

-Txomin Iñaki Diaz de Guereñu (06-08)  
-Mikel Elorza Cobos (06-12)  
-Aitor Herrero Cubero(06-12)  
-Edorta Legazpia Millan (06-15)  
-Andoni Blanco Losada (06-17)  
-Ander Pagalday Balanzategi (06-18)  
-Uxue Beloki Merino (06-21)

## EZKONTZAK

Josu Larreategi eta Jaione Agiriano (06-17)  
Alberto Salgado eta Maria Elena Martinez (07-01)  
Jose Ignacio Granados eta Sonia Marmolejo



## ESKORIATZA

Udaletxea .....	943-714407
Udal Bulegoak .....	943-714532
Udalzaingoa .....	943-714407
Euskaltegia .....	943-792168
Kultur-Etxea .....	943-714688
Gizarte-Laguntzailea .....	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen .....	943-714964
Museo-Eskola .....	943-715453
<b>Ze Barri? .....</b>	<b>943-715434</b>
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola .....	943-714157
Osakidetza .....	943-714452
Telesko .....	943-714917
Taxia .....	943-714059

## BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga) .....	943-721515
Renfe (Gasteiz) .....	945 232030
Pesa (Arrasate) .....	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak .....	112

## ORAIN DELA



**G**arai batean, 1964.urteko argazkia da honakoa, Santa Cecilia egunez Txarrixen Zozketa egiten zen. Zozketa hau egun handia izango zelakoan gaude, argazkian ageri direnak behintzat dotore-dotore jantzi baitziren okasiorako.

Goian, ezkerretik hasita: Ignacio Ezkurra (soinujolea), Lazaro Errasti, Jesus Iria, Felix Errasti, Juan Izurrategi, Valentin Zurbano (Blusaduna)..

Behean ezkerretik hasita: (ez dakigu nor den\*), Arantza Enekotegi, Junkal Arrieta, Pili Izurrategi, Edurne Ibabe, Gema Lezeta eta Amaia Leibar.

Argazkia: Miren Diaz de Gereñu.



# MUGARRI



DEBA GARAIKO  
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



1053 Km

LEGE SIKUA HASTEN DA

NISSAN *Almera* BERRIA 2.2 Di 16 v / 110 cv-ko MOTORRA. 1000 Km BAINO GEHIAGO DEPOSITUA BETE GABE.

Nissan-en, gutxik lortu dutena lortu dugu: berrikuntzan eta teknologian urrutira heltzea bere mailako motor lehiakor eta berritzailearekin. Injekzio zuzeneko turbodiesel motor berri bat, 110 cv-ko 16 balbula eta 230 mkg-tik 2000 rpm-ainoko motor pare. Bere klaseko altuena. Askok horrelako motor batekin non geldituko garen galdetuko duzue. Bada, zehatzak izateko, 1.053 kilometrotan, ze azken belaunaldiko motor indartsu bat izateaz gain, Nissan Almera berriak berdindu ezin den autonomia duelako.

Nissan Almera berria oso-oso urrutira eraman dugu, zu atzean ez gelditzeko.

IBILBIDEAZ GOZATU.



GIDATU ETA GOZATU

**5** URTEKO  
BERMEA  
KM MUGARIK GABE

MOTOR 1.5  
COMFORT 3 ate  
1.935.000PTA\*

MOTOR 1.8  
COMFORT 5 ate  
2.360.000PTA\*

MOTOR 2.2 Di  
COMFORT 3 ate  
2.320.000PTA\*

MOTOR 2.2 Di  
COMFORT 5 ate  
2.365.000PTA\*